Espediente mota: Administrazio kontratazioa
Kontratua: Bermeoko jaioberriei bertsopaperak egiteko zerbitzua ematea, publizitate bako prozedura negoziatu bidez.
Espediente zenbakia: KON_NE_G0003 (ES_81-8)

BERMEOKO JAIOBERRIEI BERTSOPAPERAK EGITEKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

PUBLIZITATE BAKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Bermeoko jaioberriei bertsopaperak egiteko zerbitzua ematea da kontratu honen xedea.

2. EGITASMOAREN JUSTIFIKAZIOA

2019-2022 aldiko Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoarekin bat etorriz, euskararen transmisioa indartzea lehentasunezko eginkizuna da, euskararen erabilera arlo guztietan indartzeko. Horregatik, Euskararen transmisioa familia bidez indartzeko eta umearen lehen hizkuntza jaiotze unetik ziurtatzeko gurasoak sentiberatu eta motibatzea ditu helburu jaioberrien egitasmoak.

Besteak beste, bertso-paper bana egiten zaie jaioberriei, eta bertso horiek sortzeko bertsolarien laguntza behar du udalak, Bermeon jaiotzen diren ume bakoitzari beren beregi egindako bertsoa egiteko zerbitzua, hain zuzen.

Familiek jasotzen dute umeari beren beregi egindako bertsoa umea jaio eta lehen hileetan, beste elementu batzuekin batera familia euskaldunetan euskarari eutsi diezaioten eta euskara ezagutzen ez duten familietan horren gaineko sentsiberatasuna areagotzeko. Horrez gain, urte bakoitzeko bertso guztiak batzen dituen liburua argitaratzen du udalak eta familien esku jartzen du.

3. HELBURUAK

- Bertsoak sortu Bermeon jaiotzen diren ume guztientzat

Familia bidezko transmisioari buruzko egitasmoaren bitartez, zeharka, helburu hauek lortzeko bidea egin nahi da:

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E20001622000H3Q3H4F2M4R8

Sinadurea eta datea
MAITE ALVAREZ DE ZARATE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-Euskera teknikaria - 14/11/2018
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2018 10:09:06

EXPEDIENTE :: 2018KON_NE_G0003
Datea: 18/10/2018
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Bertsoen bidez, familiak sentsiberatu euskararen transmisioa duen garrantziaz
- Euskararen aldeko jokaerak sustatu gurasoengan
- Euskararen balioa eta prestigioa indartu gurasoengan
- Euskararekiko maitasuna, aldeko sentimendua eta atxikimendua indartu guraso eta seme-alabengan

4. LANAREN EZAUGARRIAK ETA EPEAK

- Urtean 150 bertso sortzeko estimazioa egin da, kontuan izanda urteko bataz besteko jaiotza-kopurua eta aurreko urteko azken hilabeteetakoak.
- Udalak bertsolarien esku jarriko ditu bertsoak sortzeko behar dituzten datuak, hilero.
- Bertsolariek hamabost eguneko epean egingo dituzte bertsoak eta Euskara Sailera bidaliko dituzte.
- Bertsoen gainbegiratze-lana Euskara Sailak egingo du eta hala badagokio, zuzenketak egingo ditu.
- Opor garaian bertsoak emateko epea adostuko dute esleipendunak eta Euskara Sailak
- Adostutakoa betetzen dela ziurtatzeko eta zerbitzua hobetzerik dagoela ondorioztatzen bada, hobekuntzak adosteko, urte amaieran egindako lanaren balorazioa egingo dute esleipendunak eta Euskara Sailak.
- Egitasmoa aberasteko helburuz beste edozein ekimen egitea proposatu diezaioke udalak esleipendunari eta hala bada, ekimen hori egiteko baldintzak adostuko dira.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E20001622000H3Q3H4F2M4R8

Sinadurea eta datea
MAITE ALVAREZ DE ZARATE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-Euskera teknikaria - 14/11/2018
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2018 10:09:06

EXPEDIENTE :: 2018KON_NE_G0003
Datea: 18/10/2018
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia